

# Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

## Entomologia forensea XIII. mendeko Txinan

HUNAN (TXINA), 1247. Sung T'zu magistratu eta ikertzaile forenseak *Xi Yuan Ji Lu* (Bidegabekeriak zuzentzea) bost liburukiz osatutako bilduma argitaratu zuen. Auzitegietan epaile lanak egiteaz gain, Sung T'zuk (1186-1249) krimenen gertaleku asko zuzenean aztertu zituen, eta lehenagoko auziei bere esperientzia gehituta osatu zuen medikuntza forenseari buruzko historiako lehen tratatua. Europan, era horretako lehen lana argitaratzeko beste 350 urte baino gehiago egin behar dugu aurrera, Forturiatus Flaelis italiarrak 1602an idatzi baitzuen auzitegiko medikuntzari buruzko hurrengo liburua.

Auzitegi medikuntzaren aitzat jotzen dena alor horren barruko hainbat espezialitatetan ere aitzindari izan zen. Esaterako, kriminalak harrapatzeko intsektu eta bestelako animalien jarduna aztertzea erabilgarria izan zitekeela uste zuen. “Hilabete beroetan, harrak oraindik ez badira [gorputzaren] bederatzi zuloetan agertu, eta bularraldean, buruko larruazalean, lokietan eta zilborrean agertu badira, gorputz atal horiek kaltetuak daudela esan nahi du”, idatzi zuen Sung T'zuk. Eta harrei ez ezik, euliei ere erreparatzen ziela adierazten du bere lanean jasotako kasu batek. “Egun batez nekazari bat hilik agertu



Duela 750 urte baino gehiago Sung T'zu epaile txinatarrak hilketa baten erruduna aurkitu zuen eulien jokabideari erreparatuta.

zen arroz sail batean, eta hala-koetan maiz gertatu ohi denez, inork ez zuen gertatutakoa ikusi”. Magistratuak gorpua aztertu zuenean, arma hiltzailea arroza biltzeko erabili ohi zen igitai bat izan zela ondorioztatu zuen. Orduan, herriko nekazari guztiak bildu zituen, eta eskatu zien ilaran jartzeko eta bakoitzak aldamenean bere igitai lurrean uzteko. Berehala nekazarietako bat jo zuen erruduntzat, “bere igitaiaren inguruan euliak jirabiraka zebiltzalako”. Igitai guztiak garbi-garbi zeuden itxuraz, baina Sung T'zuk ederki zekien odola ondo garbitzea oso zaila dela, eta giza ikusmenak antzematen ez dituen arrasto txikiak ere euli haragijaleak erakartzen dituela.

Entomologia forensea auzi batean aplikatzen hurrengo Louis François Etienne Bergeret (1814-1893) mediku frantziarra izan zen, 1855ean, hau da, 500 bat urte geroago. Eta 750 urte igaro ziren, gehienok, *CSI* fikziozko teleaileko Gil Grissomi esker, intsektuek gaizkileak harrapatzeko balio dutela jakin genuen arte. Baina Sung T'zu izan zen berritzailetzat dugun teknika erabiltzen lehena; luminolik, latexezko eskularrurik, mikroskopio-rik eta ordenagailurik gabe, gainera.



## Arrastoak

### Bi “banpiro” aurkitu dituzte Bulgarian



SOZOPOL hirian arkeologo talde batek bi eskeleto aurkitu ditu burdinazko barra banaz zeharkatuta, “berriro banpiro bihur zitezen saihesteko”, Bulgariako Historia Institutuko zuzendari Bojidar Dimitroven esanetan..

Arrastoek 700 urte inguru dituzte,

baina ustezko odol xurgatzaileen gorpuk egurrezko nahiz burdinazko makilez zulatzeko ohitura XX. mendeko lehen hamarkadara arte iraun zuen, arrastoek diotenez; orain arte horrelako 100 bat eskeleto aurkitu dituzte Bulgarian.